

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

R 22/2015 Ebazpena
16/2010 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 28an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DU

1. ERAKUNDEAK (IFZ: ----) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako eskumen-gatazka negatiboaren inguruan. Hori 2007ko eta 2008ko balio erantsiaren gaineko zergaren ordainarazpen-eskumenari buruzkoa da, eta Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetu da, 16/2010 espediente-zenbakiarekin, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau 1. ERAKUNDEAK aurkeztu zuen (aurrerantzean, «erakundea» edo «1. ERAKUNDEA» Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean, 2010eko maiatzaren 20ko idazkiaren bidez. Idazkiaren sarrera 21ean erregistratu zen, Arbitraje Batzordean.

Erakundeak bere gatazka negatiboaren aurkezpen-idazkia amaitzen du, Arbitraje Batzordeari eskatuz 2007ko eta 2008ko BEZ itzultzeko eskumena zein Administrazioek duen (Zerga Administrazioko Estatu Agentziak edo Gipuzkoako Foru Ogasunak) erabakitzeko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

Era berean, erakundeak gatazkaren bigarren aurkezpen-idazkia zuzendu zion Arbitraje Batzordeari, 2010eko urriaren 6an. Horren sarrera 13an erregistratu zen eta, bertan, aurreko idazkian adierazitakoa errepikatzen du.

2.- 2011ko azaroaren 4an, Arbitraje Batzordeak P-3/2011 ebazpena eman zuen. Horren bidez, 2007ko eta 2008ko BEZ ordainarazteko eskumenaren inguruan erakundeak aurkeztutako gatazka negatiboaren izapidea ez onartzea erabaki zuen, Estatuak lehen ekitaldiaren inguruan eskatutako itzulera ukatu duela ez frogatzeagatik, bai eta bi Administrazioek ez dutelako ukatu bigarren ekitaldiaren inguruan eskatutako itzulera ere.

3.- P-3/2011 ebazpena 2011ko azaroaren 10ean jakinarazita, 1. ERAKUNDEAK administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen (NN/2012 zkia.) horren aurka. Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2013ko apirilaren 11ko Epaian balioztatu zuen eta, horren bidez, aipatutako ebazpena indargabetzea ebazten du, eta jarduerak atzeraeragitea agintzen du, erakundeari Arbitraje Batzordeari bidalitako hasierako idazkiaren akatsak konpontzeko izapidea eskainita.

4.- 30/1992 Legearen 71. artikularen arabera, Arbitraje Batzordeak P-3/2011 ebazpenean adierazitako hutsak zuzentzeko epea 2013ko maiatzaren 29an jakinarazita, eta erakundeak jakinarazpena ekainaren 5ean jasota, ekainaren 17an prestatutako eta 18an erregistratutako idazkian, horrek Arbitraje Batzordeari eskatzen dio «2007ko eta 2008ko BEZen itzulera-eskaeraren inguruko eskumen-gatazka negatiboa aurkezteko [...] hasierako idazkia zuzendutzat emateko eta, horri jarraikiz, itzulerari ekiteko Zerga Administrazio eskuduna erabakitzeko, hari horren itzulera eraginkorra agintzeko, dagozkion berandutze-interesekin batera».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

5.- 2014ko urriaren 13ko Arbitraje Batzordearen saioan, gatazkaren izapidea onartuta, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzia alegazioak egitera deituta, horrek 2014ko azaroaren 26ko zuzendari nagusiaren idazkiaren bidez egin zuen, 27an erregistratuta. Bertan, «espedientetik ondorioztatutako uziei uko eginda», Arbitraje Batzordeari eskatzen dio aitortzeko «2007ko eta 2008ko aldiei dagozkien BEZ kuotak 1. ERAKUNDEA sozietateari itzultzeko eskumena duen Administrazioa Gipuzkoako Foru Ogasuna dela».

6.- Interesezko baldintzetan epea luzatzea baimenduta, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen 2014ko abenduaren 4an, Ogasun eta Finantza Saileko Arau Garapen eta Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuaren buruaren idazkiaren bidez. Horietan, Arbitraje Batzordeari eskatzen zion aitortzeko «Foru Aldundiak ez zuela zergapekoari zegokion 2007ko eta 2008ko balio erantsiaren gaineko zerga itzultzeko eskumena».

7.- 2015eko martxoaren 10ean jakinarazitako EIABaren 16.4 artikuluan aurreikusitako aldarrikapen-izapidean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegazioak egin zituen 2015eko apirilaren 7an, horien sarrera 10ean erregistratuta. Horietan, 2014ko azaroaren 26ko lehen idazkian azaldutako aurrekariak berresten zituen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako alegazioak errepikatzen zituen, ondoren aztertuko diren terminoetan.

8.- Bere aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2015eko apirilaren 8an prestatutako eta 10ean erregistratutako idazkian aurkeztu zituen bere azken alegazioak, aurrerago aztertuko diren terminoetan.

9.- 1. ERAKUNDEAK ere alegazioak egin zituen 2015eko apirilaren 24an prestatutako eta maiatzaren 5ean erregistratutako idazkiaren bidez. Horietan, Arbitraje Batzordeari bidalitako idazkietan jasotako aldarrikapenak eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

argudioak berresten ditu, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazitako tesiarekin bat eginda eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren alegazioak ezeztatuta.

Aurrerago azalduko diren beste kontsiderazio batzuekin batera, 1. ERAKUNDEAK bere jardueran jasandako eta ordaindutako kuoten arteko aldearen ondoriozko bere aldeko BEZ saldoa berreskuratzeko bere eskubidea nabarmentzen du; izan ere, horixe aitortu du Auzitegi Gorenak, modu ukaezinean, 2013ko apirilaren 11ko Epaian -Arbitraje Batzordearen abenduaren 4ko P-3/2011 ebazpenaren aurrean jarritako NN/2012 errekurtsua estimatuz-, hurrengo premisa juridikoetan oinarrituta:

- a) «Erakundeak neurritz gain jasandako BEZ berreskuratzeko eskubidea du; izan ere, eskubide hori BEZ mekanismoari lotuta dago, Auzitegi Gorenak hainbatetan irizpena eman bezala, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia-ildo kontsolidatua jarraituta».
- b) «BEZ itzultzeko eskubidea ezin da galdu, estatuko legeriak ezarritako baldintza formalen ondorioz. Ondorioz, 1. ERAKUNDEARI dagokion itzulera-eskubidea eztabaidaezina denez, foru- zein estatu-administrazioak subjektu pasiboaren eskubide horri erantzuteko betebeharra dute, araudiaren arabera predeterminatutako irizpideen arabera, arau horiek edo horien interpretazioa subjektu pasiboari itzulera-eskubidea ukatzeko oztopo gaindiezina bihurtu gabe, gainera, eskubide hori bi Administrazioen aurrean gauzatu zuela jasotzen denean».
- c) «Era berean, jasotzen da, eta halaxe jakinarazi zion 1. ERAKUNDEAK Arbitraje Batzordeari, bi Administrazioek eskatutako itzulera ukatu ziotela, horretarako eskumenik ez zutela ulertzen zutelako».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

d) «1. ERAKUNDEAK Gipuzkoako Foru Aldundira eta Zerga Administrazioeko Estatu Agentziara jo zuen, BEZen itzulera eskatuz, eta biek ukatu zioten, arrazoi bera zela eta: eskumenik ez izatea. Inhibizio bikoitz hori ez konpontzearen eta eskuduna zein den ez zehaztearen ondorioa itzulera gauzatzeko ezintasuna da, subjektu pasibo hartzekodunaren kalterako. Horrek egiaztatzen du, BEZ berreskuratzeko eskubidea izanda, hori ez dela gauzatuko, bi Administrazio erantzuleek gatazkaren aurkezpenerako beharrezko formalitateak bete ez dituztelako».

e) «Arbitraje Batzordeak aurkeztutzat onartu behar zuen gatazka; izan ere, hori horretarako ezarritako hilabeteko epean gauzatu eta aurkeztu zen eta, Administrazioek euren hausteari ondoriorik atera ezin ziotenez, eskatzailearen kalterako, Batzordeak errekerimendua jarri behar zien Administrazioei eta eskatzaileari, alderdi guztiek eskumen-gatazka konpontzeko beharrezko datuak eta aurrekariak eman zitzaten».

10.- Prozedura Arbitraje Batzordearen Araudian xedatutakoaren arabera izapidetu da, bai eta apirilaren 11ko 1791/2013 Epaian Auzitegi Gorenak erabakitakoa betez ere. Azken horrek azaroaren 4ko P-3/2011 ebazpena indargabetzen du.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Kronologikoki ordenatuta, hauek dira espedientetik ateratako datu faktikoak eta jarduera administratiboak:

- 2005eko abenduak 28: 1. ERAKUNDEA merkataritza-sozietatearen eraketa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan emandako eskritura publikoaren bidez, hasieran, egoitza soziala Donostian kokatuta, 1. HELBIDEAN.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

- 2006ko otsailak 14: altaren aurkezpena ekonomia-jardueren gaineko zergan, 1-621 epigrafean (txatarraren eta burdinazko hondar-metalen handizkako salmenta).

- 2006ko martxoak 1: altaren aurkezpena ekonomia-jardueren gaineko zergan, 1-623 epigrafean (hondakinen berreskurapena eta merkataritza, establezimendutik kanpo).

- 2006ko uztailak 10: Erakundearen administratzaile bakar 1. ADMINISTRATZAILE jaunaren ordezkapena hori buru duen Administrazio Kontseiluaren aldetik. 2006ko abenduaren 28tik aurrera, horrek 4 kide izatetik 3 izatera pasatu zen.

- 2007ko otsailak 12: Erakundearen egoitza sozialaren aldaketa Donostiako 1. HELBIDETIK 2. HELBIDERA, hiri berean.

- 2007ko azaroak 16: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erakundeari buruzko jakinarazpen-oharra argitaratzen da, 2007ko urtarrilari, otsailari eta martxoari dagozkion BEZaren hileko autolikidazioen inguruan.

- 2008ko urtarrilak 23: Erakundearen egoitza sozialaren aldaketa Donostiako 2. HELBIDETIK 3. HELBIDERA.

- 2008ko urtarrilak 24: erakundeak 2007ko ekitaldiari dagokion BEZaren autolikidazioa aurkezten du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean, ZENBATEKOA-1 €ko bere aldeko saldoa itzultzea eskatuz.

- 2008ko abuztuak 1: BEZen eta sozietateen gaineko zergan alta-ematearen zentsu-aitorpena aurkezten da Zerga Administrazioko Estatu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

Agentzian, bai eta Europar Batasunaren barruko Eragileen Erregistroan eta Esportatzaileen Erregistroan egindako alta-eskaerak ere.

- 2008ko abuztuak 12: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ikuskaritzako Zuzendaritza Orokorrak egindako txostenaren igorpena, Zeharkako Zergak-BEZ Kudeaketa Zerbitzuak eskatuta. Horrek ondorioztatzen du «1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala [...] ez dagoela egoitza sozialean; izan ere, horren kudeaketa administratiboa eta bere negozioen zuzendaritza ez dauden bertan eraginkorki zentralizatuta».

- 2008ko abuztuak 26: erakundeak Ogasuneko Ministerioaren Tributuen Zuzendaritza Orokorrari aurkeztutako kontsulta. Bertan aldarrikatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko ekainean hasitako egiaztapen-prozeduraren menpe dagoela eta, horretan, telefonoz jakinarazi ziotela Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zuela eskumenik erakundeak aurkeztutako BEZen zein sozietateen gaineko zergaren aitortpenak onartzeko, erabakiak hartzeko gunea Errusian kokatuta zegoelako, eta ez Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Erakundeak Tributuen Zuzendaritza Orokorrari eskatzen dio jakinarazteko zein Zerga Administrazioaren aurrean bete behar dituen bere zerga-betebeharrak.

- 2008ko abuztuak 31: erakundeak 2008ko ekitaldiko urtarrilaren eta abuztuaren arteko aldiari (biak barne) dagokion BEZaren autolikidazioa aurkezten du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean, ZENBATEKOA-2 €ko bere aldeko saldoa itzultzea eskatuz.

- 2008ko irailak 18: Gipuzkoako Foru Ogasunaren Zeharkako Zergen Kudeaketa Zerbitzuaren buruak emandako gaitzespen-erabakia, 2007ko ekitaldiari dagokion BEZaren itzulerari buruzkoa, erakundea Gipuzkoako Lurralde Historikoan subjektu pasiboa ez dela argudiatuz.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

- 2008ko irailak 30: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zeharkako Zergen-BEZen Kudeaketa Zerbitzuaren erabakia, erakundearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren errebotatze-espeditentearen hasiera hitzartuz.

- 2008ko urriak 27: erakundeak alegazio-idazkia aurkezten ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren gaitzespen-erabakiaren aurrean. Bertan honako hau adierazten da: «kide gehiengodunak eta enpresa-negozioko administratzaileak Errusiakoak badira ere eta txatarraren erosketa Errusian badago ere, salmenta zein bezeroak Gipuzkoan daude, eta gune administrazioa eta kontularitzakoa Gipuzkoan daude kokatuta; ondorioz, Gipuzkoakoa jotzen da helbide fiskaltzat».

- 2008ko abenduak 23: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zeharkako Zergen-BEZen Kudeaketa Zerbitzuak erakundeak aurkeztutako alegazioak gaitzesten ditu, 2008ko irailaren 18an hartutako erabakia mantenduta.

- 2009ko otsailak 11: 1. ERAKUNDEAK idazkia aurkezten du Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean, 2007ko ekitaldiari dagokion BEZEN itzulera eskatuz. 2013ko ekainaren 18an Arbitraje Batzordeari bidalitako idazkian, erakundeak adierazten du «2008ko irailean Gipuzkoako Ogasunetik jasotako inibizioaren aurrean, 1. ERAKUNDEAK BEZ itzultzeko eskaera-aitorpenak aurkezten hasi zen hilero (...) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean. Ondorioz, 2008ko abuztuaren ondoko aldietako aitortpenak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztu ziren dagoeneko, borondatezko epean. Eta borondatezko epeetik kanpo aitortu ziren aurreko aldiak, 2007tik 2008ko uztailean».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

- 2009ko ekainak 8: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erakundearen IFZren errebokatze-prozeduraren izapidetzeari buruzko oharra argitaratzen da, jakinarazpen-helburuetarako.

- 2009ko abuztuak 10: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, erakundearen IFZren errebokatzeari buruzko oharra argitaratzen da, jakinarazpen-helburuetarako.

- 2009ko urriak 2: Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren informazio-errekerimendua erakundeari, 2008ko BEZaren autoliquidazioen eta urteko laburpen-aitorpenaren inguruan. Egiaztapen mugatuko prozedura hasten da, eta horren xedea «subjektu pasiboak aitortutako datuen egiaztapenera mugatzen da» (2008ko BEZaren autoliquidazioaren eta urteko likidazio-laburpenaren inguruan).

- 2009ko urriak 11: Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aipatutako errekerimendua betez, erakundeak 2008ko Igorritako Fakturen Erregistro Liburua, Jasotako Fakturen Erregistro Liburua, Berreskuratze-Materialen inguruko Eragiketa Libreen Erregistro Liburua eta Inbertsio Ondasunen Erregistro Liburua aurkezten ditu.

- 2009ko azaroak 4: Zerga Administrazioko Estatu Agentziak informazioa eskatzen dio erakundeari, 2007ko ekitaldiari dagokion BEZaren autoliquidazioen eta urteko aitorten-laburpenaren inguruan.

- 2009ko azaroak 20: Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aipatutako errekerimendua betez, erakundeak 2007ko Igorritako Fakturen Erregistro Liburua, Jasotako Fakturen Erregistro Liburua eta Berreskuratze-Materialen inguruko Eragiketa Libreen Erregistro Liburua aurkezten ditu.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

- 2009ko abenduak 17: erakundeak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari zuzendutako zuzenketa-idazkia igortzen du, 2007ko irailari dagokion BEZ autolikidazioan aitortutako zenbatekoari dagokionez. Bertan, 2007an eta 2008an merkantzia salgai jarritako tokien laburpena ematen da, BEZ helburuetarako, eta horrek islatzen du aldi horietan sozietateak ez zuela ondasunik entregatu Lurralde Erkidean.

- 2010eko apirilak 21: 2010eko martxoaren 30ean hartutako ebazpen ezberdinak jakinarazten zaizkio erakundeari. Horien bidez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2007ko lehen hamaika aldiei eta 2008ko 11. eta 12. aldiei dagokien BEZ konpentsazio-eskaera gaitzesten du, bai eta 2007ko azken aldiari dagokion BEZaren itzulera-eskaera ere. Izan ere, bere ustez, ez da egokia Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean hileko autolikidazio horiek aurkeztea, erakundearen 2007ko eta 2008ko ekitaldiei dagokien eragiketa-bolumena ezin baita Lurralde Erkidean lortutzat jo. Ondorioz, sozietateak ez du inola ere Estatuko Administrazioaren aurrean zergarik ordaindu beharrik.

- 2010eko apirilak 28: erakundeak idazkia igortzen dio Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, 2008ko urtarrilaren eta urriaren arteko (biak barne) hilabeteei dagokien BEZaren itzulera-eskaera errepikatuz, horren inguruko erantzun-faltaren aurrean.

- 2010eko maiatzak 20: erakundeak gatazka-aurkezpen idazkia aurkezten dio Arbitraje Batzordeari, 2007ko eta 2008ko ekitaldiei dagozkien BEZ kuotak itzultzeko bi Administrazioen ezezkoaren aurrean.

- 2010eko uztailak 9: Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zehapen-espedienteak irekitzen ditu, 2007ko lehen hamaika aldiei eta 2008ko 11.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

eta 12. aldiei dagozkien BEZ autolikidazioak zein 2007ko azken aldiari dagokion BEZ itzultzeko eskaera garaiz kanpo aurkezteagatik.

- 2010eko urriak 6: erakundeak gatazka aurkezteko bigarren idazkia aurkezten du, 2010eko maiatzaren 20koan adierazitakoa errepikatuz.

- 2011ko azaroak 4: P-3/2011 ebazpenaren bidez, Arbitraje Batzordeak erakundeak 16/2010 espediente-zenbakiarekin izapidetutako gatazkan egindako uzien izapidea ez onartzea erabaki zuen.

- 2013ko apirilak 11: Auzitegi Gorenak erakundeak aurreko ebazpenaren aurka jarritako NN/2012 administrazioarekiko auzi-errekurtsoa estimatzea erabakitzen du, ebazpen hori indargabetuta eta jarduerak atzeraeragitea aginduta, Arbitraje Batzordeari zuzendutako hasierako idazkiaren hutsak zuzentzeko erakundeari izapidea eskaintzeko.

- 2013ko maiatzak 29: Arbitraje Batzordeak P-3/2011 ebazpenean adierazitako hutsuneak zuzentzera bultzatzen du erakundea.

- 2013ko ekainak 17: erakundeak gatazka aurkezteko hasierako idazkiaren zuzenketa-idazkia bidaltzen dio Arbitraje Batzordeari.

- 2014ko urriak 13: zuzenketa-idazkia aztertuta, Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidetzea onartzen du.

2.- Era berean, espedientetik ondorioztatzen da erakundearen jarduera nagusia burdinazko txatarraren inportazioa dela, Euskadiko galdategiak hornitzeko. Enpresak atrakalekua du ERRUSIAN eta, bertan, tokiko hornitzaileei erositako txatarra biltzen eta biltegitratzen du, Pasaiako, Bilboko edo Baionako portuetara eramanda. Beraz, bere enpresa-egituraren zati bat Errusian kokatzen da

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

(hornitzaileei merkantzia erosteko) eta beste zati bat Espainian (bezeroei saltzeko).

2013ko ekainaren 17ko zuzenketa-idazkian, 1. ERAKUNDEAK adierazten du «Gipuzkoako Lurralde Historikoan sortutako sozietatea dela, eta helbidea ere bertan duela; ondorioz, hasieran, Lurralde horretako Foru Ogasunaren aurrean bete zituen bere betebeharrak». Jarraian, honako hau azaltzen du:

«Zerga-araudi aplikagarriaren arabera, hondakin- eta berreskuratze-materialen inportazioak zein entregak BEZaren subjektu pasiboaren inbertsio-erregimena deitutakoaren menpe daude. Hori subjektu pasiboaren irudia tokiz aldatzean datza, kargatutako eragiketak jasotzen dituzten enpresariei edo profesionalei esleituta. Operatiba horrek inplikatzen du, batetik, 1. ERAKUNDEA subjektu pasiboa dela egindako inportazioetan; ondorioz, eragiketa horietan sortutako kuoten zenbatekoa jasaten eta sartzen du; eta bestetik, menpe ere dauden gauzatutako materialen entregak eskuratzailerearen egoitzan kargatzen direla, horrek igorri behar dituen autofakturen bidez. Sistema horren emaitza da 1. ERAKUNDEAK jasandako eta sartutako kuoten zenbatekoak jasanarazitakoena gainditzen duela beti, horrela, BEZaren saldoaren aldeko itzulera eskatzeko eskubidea sortuta».

Erakundeak eranstean du, 2007an eta 2008an, zenbati txatarra-inportazio gauzatu zituela, aduana-betebeharrak beteta eta inportazio-eragiketan horiei zegokien BEZ ordainduta. Era berean, eranstean du, bere aldeko BEZ saldoaren berreskuratze-eskubidearen gauzapenean, 2007ko BEZen itzulera eskatu ziola Gipuzkoako Foru Ogasunari, 390 eredu den autolikidazioaren bidez. Halaber, 2008ko ekitaldiari dagokionez, hileko autolikidazioak aurkeztu zituen (330 eredu), «konpentsatu beharrekoa» laukian, aldi bakoitzeko bere aldeko emaitza jarrita. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko BEZ itzulera gaitzetsita,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

2008ko irailaren 18ko Erabakiaren bidez, 1. ERAKUNDEA Gipuzkoako Lurralde Historikoaren subjektu pasibotzat ez jotzeagatik, 2008ko abuztuaren ondoko aldietan, erakundea bere hileko aitorpenak aurkezten hasi zen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean, BEZaren itzulera eskatuz. «Aurreko aldiak, 2007tik 2008ko uztailera, borondatezko epez kanpo» aitortu zituen eta, azkenean, 2007ko ekitaldiari zegokion BEZ itzulera 2009ko otsailaren 11 aurkeztu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean.

2010eko apirilaren 21ean jakinarazitako ebazpenen bitartez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak BEZaren itzulera gaitzetsi zuen, 1. ERAKUNDEAK ez zuela Zerga Administrazioko Estatu Agentzian tributatu beharrik argudiatuta. Nolanahi ere, 2010eko uztailaren 9an, hainbat zehapen-espediteren hasiera erabaki zuen, eta zigorra ezartzeko hainbat proposamen jakinarazi zizkion erakundeari, aipaturako BEZaren aitorpenak eta autolikidazioak epean ez aurkezteagatik.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2008ko BEZaren itzuleraren ukapen formala ez dago jasota; nolanahi ere, hori erakundearen aldarrikapenetatik zein Foru Aldundiaren idazkietatik eta horrek izandako jarreratik ondorioztatzen da.

3.- Gatazkaren gai nagusia da 1. ERAKUNDEAREN 2007ko eta 2008ko BEZ ordainarazteko eta, ondorioz, kasua balitz, zerga eta ekitaldi horien inguruan erakundeak eskatutako itzulera gauzatzeko eskumena zein Administraziok duen (Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) edo Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA)) zehaztea da.

Gai hori Ekonomia Itunaren 27, 28 eta 29 artikuluen zein 43.Lau artikuluen aplikazioaren bidez konpondu behar dira, bai eta, aurrerago ikusiko diren arrazoiengatik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

37/1992 Legearen 84.Bi artikulua eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 84.Bi artikulua aplikazioaren bidez ere.

Ekonomia Itunaren 27.Bi artikulua hau xedatzen du:

«Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga ordainarazteko, honako arau hauek bete behar dira:

Lehena. Euskal lurraldean bakarrik jarduten duten subjektu pasiboek zerga guztiak dagokien foru-aldundian ordaindu behar dituzte; eta lurralde erkidean bakarrik jarduten dutenek Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituzte.

Bigarrena. Lurralde erkidean eta euskal lurraldean jarduten duten subjektu pasiboek zergak bi administrazioetan ordaindu behar dituzte, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren proportzioan. Proportzio hori zehazteko, hurrengo artikuluan jasotako lotura-puntuak erabili behar dira.

Hirugarrena. Aurreko urtean 7 milioi eurotik gorako [6 milioi euro, urriaren 25eko 28/2007 Legeak sartutako aldaketaren aurretik] eragiketa-kopurua lortu ez duten subjektu pasiboek, eragiketak batean zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badute; zerga-egoitza Euskadin baldin badute, berriz, dagokien foru-aldundian.

Bi. Eragiketa-bolumen osoa hauxe izango da: ondasunak saltzean eta zerbitzuak ematean subjektu pasiboak lortu dituen kontraprestazioen zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga eta, halakorik badago, baliokidetasun-errekargua alde batera utzita.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

Jardueran hasi berriak direnen kasuan, 7 milioi euroko kopurua zenbatzeko [6 milioi euro, urriaren 25eko 28/2007 Legeak sartutako aldaketaren aurretik], egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

Jardueran emandako lehenengo urtea bat ez badator urtebete naturalarekin, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketarik abiatuko da urte osokoa kalkulatzeko.

Hiru. Atal honetan ezarritakoa dela-eta, subjektu pasibo batek lurralde jakin batean jarduten duela esan daiteke, 28. artikuluan ezarritako irizpideen arabera lurralde horretan ondasunak eman edo zerbitzuak egiten baditu».

Bere aldetik, eragiketen gauzapearen tokiari dagokionez, Ekonomia Itunaren 28. artikulua honako hau xedatzen du:

«Bat. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, honako arau hauek betetzen dituztenak hartuko dira, zergari lotuta dauden operazioen artetik, Euskadiko lurralde historikoetan egindakotzat:

A) Ondasun-emateak:

1. Ondasun higitari gorpuzdunak entregatzeko beste edozein saio, Euskaditik uzten badituzte jaso behar dituenaren eskuetan. Ondasun horiek garraiatu egin behar badira jaso behar dituenaren eskuetan uzteko, halakoetan, espedizioa edo garraioa hasten denean ondasunak non dauden, han egindakotzat hartuko da entrega. Ondorengoak erregela honetatik kanpo geratuko dira:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada.

b) Emateak direla-eta industriako elementuren batzuk Euskaditik kanpora instalatu behar badira, emate horiek euskal lurraldean egindakotzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira: gertatzeko eta fabrikatzeko lanak lurralde horretan egin behar dira; eta instalatu edo muntatzeko kostuak ezin du kontraprestazio guztiaren %15 baino handiagoa izan. (...)

c) Erkidegoko beste estatu batetik abiatuta igorri edo garraiatu behar diren ondasunak badira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako betekizunak betetzen badira urrutiko salmentaren araubidea aplikatzeko, ondasun-ematea Euskadin egindakotzat joko da ondasunaren garraioa Euskadiko lurraldean amaitzen bada.

2. Elektrizitate-energia ekoizten dutenek egindako entregak, energia hori sortzen duten zentroak euskal lurraldean baldin badira.

3. Ondasun higiezin emateak, ondasunok euskal lurraldean badaude.

B) Zerbitzuak ematea: (...)

C) Aurreko letretan xedatutakoa kontuan hartu behar bada ere, honako eragiketa hauetan, Zerga ordainarazteko eskumena Estatuko Administrazioak edo foru-aldundi eskudunak izango du, subjektu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

pasiboaren zerga-egoitza lurralde erkidean edo Euskadin dagoen kontuan hartuta:

1. Nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantzako ustiategiek edo arrantzontzi-armadoreek produktu naturalekin egindako entregak, ez baldin badute eraldatzeko prozesurik jasan eta ustiategi edo armadore horien landaketa, esplotazio edo harrapaketatik baldin badatoz zuzenean.
2. Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere.
3. Garraiobideen errentamenduak».

Bi. Artikulu honetan aipaturako eragiketak egiten ez dituzten erakundeek foru-aldundiei ordainduko dizkiete zergak, zerga-egoitza euskal lurraldean badute».

Kudeaketari eta ikuskapenari dagokionez, Ekonomia Itunaren 29.Lau eta Bost artikuluek honako hau ezartzen dute:

«Lau. Subjektu pasiboek zergaren aitorpen-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena duten administrazioei. Aitorpen-likidazio horietan, beti ere, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazio batari edo besteari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti.

Bost. Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

Pertsona juridikoen helbide fiskalari dagokionez, Ekonomia Itunaren 43.Lau artikulua honako hau adierazten du:

«Lau. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da:

a) Ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsona fisikoak.

b) Pertsona juridikoak eta sozietateen gaineko zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, beti ere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Bestela gertatuz gero, aipatutako kudeaketa edo zuzendaritza Euskadin gauzatzen denean.

Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan».

Bere aldetik, kasuan aplikagarria den 2010eko ekitaldiaren aurreko idazketan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 84.Bi artikulua eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 84.Bi artikulua honako hau ezartzen dute:

«Bi.- BEZaren helburuetarako, Zergaren aplikaziorako lurraldean ezarritakotzat joko dira bertan euren ekonomia-jardueraren egoitza, establezimendu iraunkorra edo euren egoitza fiskala duten subjektu pasiboak, Zergapeko eragiketak aipatutako establezimendu horretan egiten ez badituzte ere».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

Planteatutako gai nagusia eta hori konpontzeko araudi-esparru aplikagarria identifikatuta, Zerga Administrazio bakoitzak ordainarazteko euren eskumen eza defendatzeko eta, ondorioz, 1. ERAKUNDEAK alferrik eskatutako 2007ko zein 2008ko BEZ itzultzeko emandako argudioak azalduko ditugu. Azkenik, gatazka sustatu duen erakundeak berak emandako alegazioak eta frogak emango ditugu.

4.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren ustez, berak ez du aipatutako itzulera gauzatzeko eskumena, 2014ko azaroaren 27ko alegazioetan honako hau argudiatuta:

1.- 2007ko BEZaren ordainarazpenari dagokionez, 1. ERAKUNDEAK aurreko ekitaldian (2006) gauzatutako eragiketa-bolumena egiaztatu ezin izan duela ohartuta, argudiatzen du Itunean jasotako bi arau izan daitezkeela aplikagarriak:

a) 2006an, erakundearen eragiketa-bolumena 6 milioi eurotik gorakoa ez izategatik, helbide fiskalaren irizpidea aplikagarria balitz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren ustez, «zergapekoaren helbide fiskala Gipuzkoako Foru Aldundian kokatuta dagoenez, helbide fiskalaren irizpidearen aplikazioak aipatutako Aldundia 2007ko BEZ ordainarazteko Administrazio eskuduntzat jotzera bultzatzen gaitu». Horretarako, erakundearen helbide fiskala Gipuzkoako Foru Aldundian dagoela uste da, hurrengo kontsiderazioen laguntzarekin:

«Zergapekoak berak 2008ko abuztuaren 26ko idazkian adierazi bezala, eratu zenetik, enpresak Gipuzkoan tributatu du; izan ere, bere ustez, helbide fiskala eta gune estrategikoa Foru Lurraldean zeuden, eta lurralde horretan aurkeztu zituen bere zergak. Era berean, 2007ko eta 2008ko Igorritako Fakturen Erregistro Liburuak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

eta Jasotako Fakturen Erregistro Liburuak aldarrikatzen dute negozioaren helbide eraginkorra (gutxienez, Espainian gauzatutako eragiketei dagokienez) Gipuzkoan dagoela.

Gipuzkoako presentzia eraginkor hori 2008ko Inbertsio Ondasunen Erregistro Liburuan berresten da ere bai; bertan, egiaztatzen da sozietateak mota horretako ondasunak dituela bertan.

Puntu horri dagokionez, deigarria da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sozietatearen helbide fiskala bere lurraldean ez zegoela pentsatzen bazuen ere, Foru Ogasun horrek ez duela inoiz helbide fiskal hori Lurralde Erkidean dagoenaren frogarik aurkeztu; era berean, ez dio Zerga Administrazioako Estatu Agentziari proposatu helbide hori aldatzea. Are gehiago, jaso behar da, enpresaren adierazpenen arabera, lehen BEZ aitortenez gain, sozietateen gaineko zerga eta langileen atxikipenak ere Gipuzkoan aitortzen dituela».

b) 2006an, erakundearen eragiketa-bolumena 6 milioi eurotik goragoa izanez gero, eta «eragiketen kokagunea kontuan izango bagenu (...), Itunaren 27.1.1 artikuluan jasotako araua aplikagarria litzateke; hau da, eragiketak gauzatu diren Administrazioa»; Zerga Administrazioako Estatu Agentziak eranstean du «1. ERAKUNDEA sozietateak honako hau adierazi zuela 2009/12/17ko bere idazkian:

«a) 2007an eta 2008an, ez zuela inolako ondasun-ematerik egin Lurralde Erkidean. Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu-basean jasotako informazioak hori berresten du.

b) Aldiz, Gipuzkoan eragiketan gauzatzen zituela adierazi zuen».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

Ondorioz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ondorioztatzen du, «bigarren kasu horretan ere (...), 2007ko BEZ ordainarazpena Gipuzkoako Foru Aldundiari zegokiokeela, eragiketen kokagunearen irizpidea aplikatuta».

2.- 2008ko BEZari dagokionez, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazten du «2007ko ekitaldian, enpresaren eragiketa-bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan zela eta, esan bezala, 2008an ere ez zuen inolako ondasun-ematerik gauzatu Lurralde Erkidean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren lurraldeak eragiketak egin bazituen ere. Ondorioz, aurretik adierazitako arauaren arabera, 2008ko BEZ ordainarazteko Administrazio eskuduna ere aipaturako Foru Aldundia da».

Labur esanda, Estatuko Administrazioaren ustez, «aurretik azaldutako guztia dela-eta, eta aipaturako frogak eta aurrekariak kontuan izanda (...), Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez du eskatutako itzulerak gauzatzeko eskumena». Beraz, interesgarria da Arbitraje Batzordeak erabakitzea Gipuzkoako Foru Ogasunak duela erakundeak eskatutako 2007ko eta 2008ko aldiei dagozkien BEZ kuoten itzulera gauzatzeko eskumena.

5.- 2014ko abenduaren 4an aurkeztutako idazkian, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere ez du uste 2007ko zein 2008ko balio erantsiaren gaineko zergaren itzulera gauzatzeko eskumena duenik, bere jarrera hurrengo aurrekarietan eta alegazioetan oinarrituta:

1.- Erakundea 2005eko abenduaren 28an eratu zen, egoitza soziala Donostiako 1. HELBIDEAN zuela; alta-aitorpena 1-621 epigrafean aurkeztu zuen, 2006ko otsailaren 14an, eta 1-623 epigrafean, 2006ko martxoaren 1ean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

2.- «Zergapekoak BEZ autolikidazioak aurkeztu zituen Foru Aldundiaren aurrean, 2005eko laugarren hiruhilekotik 2008ko abuztura arte. Horiek hiru hilean behin gauzatu ziren 2005eko eta 2006ko ekitaldietan, eta hilean behin, 2007ko eta 2008ko ekitaldietan. Ekitaldi horietan, bere BEZ aitortpenetan, konpentsatu beharreko eta, batzuetan, itzuli beharreko saldoak gertatzen ziren, gauzatzen dituen eragiketetan erabili beharreko subjektu pasiboaren inbertsio-mekanismoaren aplikazioaren ondorioz».

3.- 2008ko urtarrilean, zergapekok 2007ko BEZ autolikidazioa aurkeztu zuen, ZENBATEKOA-1 euroko itzulera eskatuz; era berean, BEZ autolikidazioak aurkeztu zituen hilero Foru Aldundian, 2008ko urtarriletik abuztura (biak barne), ZENBATEKOA-2 euroko konpentsatu beharreko kuotarekin, 2008ko abuztuaren 31n.

4.- 2008ko irailaren 18ko Erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zeharkako Zergen Kudeaketa Zerbitzuak 2007ko ekitaldiko BEZen itzulera gaitzetsi zuen; izan ere, 1. ERAKUNDEA enpresa «ez zen BEZaren subjektu pasiboa ekitaldi horretan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, bere helbide fiskala lurralde horretan ez zegoela uste delako». Eta hori, 2008ko abuztuaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ikuskaritzako Zuzendariorde eta Orokorrak igorritako Txostenean oinarrituta, 2007ko maiatzaren 23an erakundearekin hasitako jardueren ondorioz, sozietatearen helbide fiskala eta gauzatutako eragiketak egiaztatzeko Ikuskaritza Programa zela eta. Bertan ondorioztatzen zen «1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala ez dagoela egoitza sozialean, bertan ez daudelako modu eraginkorrean zentralizatuta kudeaketa administratiboa eta bere negozioen zuzendaritza».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

5.- 2008ko abuztuaren 12ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ikuskaritzako Zuzendariorde eta Orokorraren aipaturako Txostenak honako iritzi hauek ematen ditu, erakundearen kudeaketa administratiboari eta negozioen zuzendaritzari dagokienez:

- Bere eraketan agertzen zen Donostiako 1. HELBIDEAN kokaturako hasierako egoitza soziala jardura-seinalerik ez zuen etxebizitza zen.
- Ez zegoen erakundeak Donostiako 2. HELBIDEAN aitortutako ondoko egoitza soziala hala erabiltzeko titulu juridikorik ematen zion inolako alokairu-kontraturik.
- Eratu zenetik eta 2006ko uztailaren 10era arte, erakundearen administratzaile bakarra (aurrerago, Administrazio Kontseiluaren presidentea) Errusian bizi zen.
- 2006ko uztailaren 10etik aurrera, lau pertsonaz osaturako Administrazio Kontseilua izendatu zen. Errusiakoak ziren eta helbidea bertan zuten presidentek eta presidenteordeak kapital sozialaren % 86,74 zuten, bai eta erabakitze botere handia ere. Gipuzkoan bizi zen administratzaile bakarra zegoen, eta horrek merkataritza-sozietatearen kapitalaren % 1,29 eta botere mugatuak zituen bakarrik.
- Erakundearen «modus operandiaren» arabera, negozioen zuzendaritza eraginkorra ez zen egoitza sozialetik gauzatu. Izan ere:
 - la erosketak guztiak Errusian gauzatzen dira, eta salmenta gehienak hirugarren herrialdeei gauzatutako txatarra salmentak dira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

- Salerosketa-kontratu gehienak ERRUSIAN daude sinatuta, eta salerosketa-eragiketa guztiak kudeatzen dituen 1. EMPRESA izeneko enpresak formalizatzen ditu.
- Espainiako enpresei igorritako fakturak egoitza sozialean kokatutako ordenagailuan egiten ziren, eta gainontzekoak Errusiatik igortzen dira.
- Salerosketa-kontratuen kopia eskatuta, ez da jatorrizkorik zein kopiarik aurkitzen egoitza sozialean.

Txosten horretan oinarrituta eta pertsona juridikoen helbide fiskalari buruzko Ekonomia Itunaren 43.Lau artikularen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak ondorioztatzen du erakundeak ez zuela Gipuzkoan bere helbide fiskala; izan ere, «bere ustez, horrek Donostian ezarritako egoitza sozialean ez ziren kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza zentralizatzen». Are gehiago, eransten du, hemen garrantzizkoak diren bi ekitaldien ondoko urteei dagokienez (2007 eta 2008), «bere tributuen kudeaketan, Donostiako Udala ere ez zela gai izan zergapekoa aurkitzeko, tokiko zerga-zorra jakinarazteko, 2009ko ekonomia-jardueren gaineko zergari zegokienez; izan ere, ediktu bidez, 2010eko ekainaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez, jakinarazi izan behar zuen (...), eta fase exekutiboan, 2011ko urtarrilaren 11n, Aldizkariaren bidez ere bai (...)

6.- 1. ERAKUNDEAK helbide fiskala Gipuzkoan zuela ukatzearen ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak erakundeak zergaren aplikazio-lurraldean ezarritako subjektu pasiboaren izaera zuela ukatu zuen; izan ere, «Ogasun eta Finantza Sailaren aldetik, 1. ERAKUNDEAK helbide fiskala Gipuzkoan ez zuela pentsatzeak eragin zuen, aldi berean,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

zergaren aplikazio-eremutik kanpo zegoela pentsatzea, lurralde horretan ez baitzuen beste egoitza edo establezimendurik». Era berean, adierazten du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ezarritako jurisprudentziatik ondorioztatzen dela, enpresari bat ez dagoela zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita, lurralde horretan ez duenean «bere jardueraren egoitza» (hau da, horren zuzendaritza nagusiaren funtsezko erabakiak hartzen den tokia eta horren administrazio zentralaren funtzioak garatzen diren tokia), ez eta establezimendu egonkorra ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eranstean du, nolana ere, erakundea zergaren aplikazio-lurraldean eta, horren barnean, Gipuzkoako Lurraldek Historiakoa ezarritako subjektu pasibotzat jo zela; izan ere, BEZaren itzulera eskatu zuen Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 115. artikuluan eta epaietan aurreikusitako itzulera-prozedura orokorra erabilia. Hori Espainiako BEZaren aplikazio-lurraldearen barnean ezarritako enpresariak edo profesionalak soilik erabili dezakete.

7.- Gipuzkoako Foru Aldundiak 1. ERAKUNDEA zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez dagoen erakundetzat jotzearen ondorioa da, BEZaren ordainarazpenari dagokionez, eskumen-banaketarako Ekonomia Itunaren 27. Artikuluan arauak ez aplikatzea; izan ere, bere irakurketatik ondorioztatzen da «horiek zergaren aplikazio-lurraldean ezarritako subjektu pasiboak buruzkoak direla soilik. Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, hori argi eta garbi ondorioztatzen da hirugarren arautik. Horrek subjektu pasiboen helbide fiskalarena erabiltzen du konexio-puntu bakar bezala, ordainarazpen-eskumena Estatuaren eta Euskadiren artean banatuta, aipaturako helbidea lurralde erkidean edo foru-lurraldean kokatuta egotearen arabera eta, ondorioz, zergaren aplikazio-lurraldearen barnean. Bestalde, eranstean du, Ekonomia Itunak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

BEZaren hitzarmenari eskainitako gainontzeko manuetan (26-29 artikulua), ez dago inolako aurreikuspenik, bertan ezarrita ez dauden enpresariei eta profesionalei zergaren aplikazio-lurraldean jasandako BEZ itzultzeko Administrazio eskudunari dagokionez» (Laugarren Alegazioa).

6.- 2015eko apirilaren 10eko azken alegazioetan, Zerga Administrazioko Estatu Agentzia ez dator bat Gipuzkoako Foru Aldundiak emandakoekin, hurrengo argudioetan oinarrituta:

a) 37/1992 Legearen 84.Bi artikuluen eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren arabera, eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari (EEEZ) buruzko Ekonomia Itunaren 21.Bi artikuluan xedatutakoa ere kontuan izanda, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren ustez, «subjektu pasiboa lurralde jakin batean kokatuta dagoen zehazteko, kontuan izan behar dugu jarduera ekonomikoaren egoitza, helbide fiskala edo zergari lotutako ondasun-emateen eta zerbitzu-prestazioen gauzapenean esku hartzen duen behin betiko establezimendurik dagoen leku berean».

Horren inguruan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazten du, «Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela nahikoa frogatu baldintza horiek ez direla aipaturako Aldundiaren lurraldean gertatzen». Ondorio horrek bi oinarri ditu: batetik, sozietatearen administratzaile 2. ADMINISTRATZAILE jaunak 2008ko urriaren 27ko idazkian egindako aldarrikapenak erakundeak eskatutako BEZ itzulera ukatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2008ko irailaren 18ko erabakiaren aurrean; eta bestetik, 2008ko abuztuaren 26an, erakundeak Ogasun Ministerioko Tributuen Zuzendaritza Orokorrari aurkeztutako kontsultaren testuan, sozietateak Gipuzkoan langileak dituela eta langileen atxikpenak Gipuzkoako Foru Aldundian aitortzen direla jasota.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

2008ko urriaren 27ko aipaturako alegazio-idazkian, 2. ADMINISTRATZAILE jaunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren adierazpenak ezeztatzen ditu, 2008ko irailaren 18ko erabakian, 1. ERAKUNDEAREN jardueraren aspektu ezberdinak aipatuta:

- Egoitza sozialari dagokionez, adierazten du hasieran etxebizitza batean kokatzeak gastu finakoak murrizteko zela soilik, negozioaren dokumentazioaren artxiboaren gaia oztopoa izan gabe -etxebizitza egoitza soziala eta bulegoa zen-, «hasieran, faktura-kopurua oso txikia zelako, baina zenbateko handikoak». 2007ko abendutik Donostiako 2. HELBIDEAN kokaturako egoitza sozialari dagokionez, adierazten du, berrakura-kontraturik ez badago ere, erakundearen eta 1. AHOLKULARITZA aholkularitza fiskalaren artean egindako kontratua dagoela eta, bertan, zergapekoarekiko berrakura-oharra agertzen dela. Beste aldetik, Foru Ogasuneko Zeharkako Zergen Kudeaketa Zerbitzuak 2008ko abuztuaren 12an igorritako Txostenean 2008ko otsailaren 13ko eginbidea aipatzen da. Horrek jasotzen du, berezko berrakura-kontraturik ez badago ere, zerbitzua aholkularitza-sozietateak emandako osagaietako bat bezala ematen dela, eta 1. ERAKUNDEAK lokalaren jabea den aholkularitza fiskalari ordaindutako hileko errentan sartuta dagoela.

- Negozioaren kudeaketari dagokionez, 2. ADMINISTRATZAILE jaunak enpresaren kudeaketa komertziala eta administratiboa gauzatzeko modua azaltzen du, eta ondorioztatzen du, «kide gehiengodunak Errusiarrak eta enpresa-negozioko administratzaileak badira ere, txatarraren erosketa Errusian dagoela, salmenta eta bezeroak Gipuzkoan daudela, eta gune administratiboa eta kontularitza

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

Gipuzkoan daudela; ondorioz, Gipuzkoakoa jotzen da helbide fiskaltzat», hurrengo baldintzak kontuan izanda, nagusiki:

- Kudeaketa administratiboa Gipuzkoan zehaztuta dago, argi eta garbi; izan ere, lurralde horretan gauzatzen ditu erakundeak honako jarduera hauek: kontularitza eramatea; kobrantzen eta ordainketen aurreikuspenak; hornitzaileen eta hartzekodunen kobrantza- eta ordainketa-aginduak; zergak (BEZ, langileen atxikipenak eta Sozietateen gaineko zerga), notario aktak, sinaduren legalizazioa; Merkataritza Erregistroa, 2005eko, 2006ko eta 2007ko Kontuen Gordailua.
- Txatarra-erosketen ordainketatik eta salmenten sarreratik ondorioztatutako banku-eragiketak Espainiako bankuetako kontuen bidez gauzatzen dira, Gipuzkoako sukurtsaletan.
- Errusian ez dago enpresarik, eta presidenteak eta presidenteordeak soilik jarduten dute erakundearen administratzaile bezala, txatarra erosteko kudeaketak gauzatzeko.
- Sozietatearen eraketa-eskrituran, boterea ematen zaio Euskadin helbidea duen 2. ADMINISTRATZAILE jaunari, merkataritza gauzatzeko, edonolako notario-aktak premiatzeko, Estatuko Zentroen eta Organismoen aurrean agertzeko, auzietarako botere orokorrak emateko, bai eta botere hori (guztiz edo partzialki) ordezkatzeko eta horren kopia lortzeko; eta botere horietan oinarrituta, «esan daiteke pertsona horrek gauzatzen zuela kudeaketa soziala aipatutako lurraldean».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

b) Erakundeak bere aitorten fiskal guztiak Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkezten dituzenez, langileak ditu Gipuzkoa, bai eta kontratatzeko boterea duen pertsona bat ere, eta «kontuan izanda, lurralde horretan duen jarduerak denboran irauten duela, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazitakoaren aurka, [Zerga Administrazioko Estatu Agentziak] pentsatzen du 1. ERAKUNDEAK establezimendu egonkorra duela Euskadin».

c) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren ustez, erakundea «Euskadin establezimendu egonkorra duen zergapekotzat jo behar da eta, ondorioz, Itunaren 27.Bat.Hirugarren [Lehena esan behar du] artikuluan jasotako arauak dira aplikagarriak. Horien arabera, amaitzen du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, eta erakundeak 2006ko ekitaldirako aitortutako negozio-kopuruaren zenbateko garbia 7,3 milioi eurokoa eta 2007ko ekitaldirako 12,1 milioi eurokoa izan zela jasotzen duen 2008ko abuztuaren 12ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren txostenaren arabera, 1. ERAKUNDEA sozietateari 2007ko eta 2008ko ekitaldietako BEZ eskatzeko administrazio eskuduna Gipuzkoako Foru Aldundia da; izan ere, lurralde horretan soilik jarduten du eta, aurreko urteetan, sozietatearen eragiketen bolumen osoa 7 milioi eurotik gorakoa da».

7.- Gipuzkoako Foru Aldundiak honako hau argudiatzen du bere azken alegazioetan:

1.- Foru Aldundiak gatazka honetan zalantzan jarri duena «merkataritza-sozietateak bere helbide fiskala Gipuzkoan duenaren adierazpena eta kontsiderazioa dela, hain zuzen ere (...)».

2.- «Merkataritza-sozietateak Donostiako 1. HELBIDEAN zuen jatorrizko helbidea bat zetorrela bertako langile batek 2006ko eta 2007ko (...)»

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aitortutakoarekin (...). Gainera, aipatutako langileak ez du aitortenik aurkeztu aipatutako zergarengatik 2008an, berriro ere, merkataritza-sozietateak 2008an gauzatutako helbide-aldaketarekin batera».

3.- «Jurisprudentzia-doktrinaren arabera, enpresa-jarduerak zehatzen duela non kokatzen den pertsona juridikoen helbide fiskala (2014/2/21eko eta 2013/10/17ko Auzitegi Gorenaren Epaiak, besteak beste)». Era berean, eransten du «eztabaida kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailean dauden datuen arabera, merkataritza-sozietatearen merkataritza- zein funtzionamendu-aspektuek erakundea zergaren aplikazio-lurraldean kokatzen ez dela pentsarazten dute».

4.- Zergapekoak Gipuzkoan inbertsio-ondasunak izateari dagokionez, «aipatutako inbertsio-ondasunak aipatutako lurraldean kokatzea ekartzen duten higiezinak edo antzekoak direla pentsatzea saihesten duten nahikoa seinale daudela (...) eta, aldiz, horiek lurraldean kokatzeko baldintzak betetzen ez dituzten garraiabideekin erlacionatuta daudela pentsarazten dutela».

5.- Erakundeak eragiketak Gipuzkoan baina ez lurralde erkidean gauzatzen dituenaren Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren adierazpenari dagokionez, «Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zergapekoak gauzatutako aldarrikapen sinpleetan oinarritzen dituela berriro, horretarako inolako egiaztapen-jarduerarik zabaldu gabe».

6.- «Nolanahi ere, aipatzekoa dela Administrazio honek ez duela gatazkaren xedea diren BEZ itzulerak gauzatzeko bere eskumen eza merkataritza-sozietateak eragiketak gauzatzeko kokagunean oinarritzen, baizik eta zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez izatearen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

konsiderazioan. Estatuko Administrazioak ez du aspektu hori inoiz ukatu».

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere azken alegazioak amaitzen ditu, eskatuz, Arbitraje Batzordeak «Foru Ogasunaren aldeko ebazpena emateko, zergapekoaren helbide fiskala (...) Gipuzkoako Foru Aldundian ez dagoela eta Estatuko Administrazioak duela horrek eskatutako 2007ko eta 2008ko balio erantsiaren gaineko zergaren itzulera gauzatzeko eskumena adieraztearen zentzuan».

8.- Bere aldetik, 2015eko maiatzaren 5ean aurkeztutako idazkian, 1. ERAKUNDEAK bere aurreko idazkietako aldarrikapenak eta argudioak berresten ditu, eta «Gipuzkoako Administrazioak defendatutako tesiari zorrotz uko egiten dio», honako hau nabarmenduz:

- «1. ERAKUNDEA Gipuzkoan eratutako sozietatea da, Espainiako merkataritza-legeriaren arabera, eta horren egoitza soziala beti egon da Gipuzkoan kokatuta».

- «Enpresaren kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza eraginkorra beti gauzatu dira Gipuzkoan. Zenbait kidek edo administratzailearen bat Lurralde horretan ez bizitzeak eta zenbait jakinarazpen egoitza sozialean gauzatu ezin izanak ez du erakundeari bere egoiliar-izaera kentzeko baimena ematen. Izan ere, erakundeak Gipuzkoako egoiliarrak diren kideen partaidetza izan du, eta du gaur egun. Gainera, eta batez ere, erakundeak beti izan ditu, eta oraindik ere baditu, Gipuzkoan bizi diren administratzaileak, hala nola 2. ADMINISTRATZAILE jauna eta 1. ADMINISTRATZAILE jauna».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

- «Hainbat jakinarazpen gauzatu dira Donostiako 2. HELBIDEAN kokatutako erakundearen egoitza sozialean. Adibidez, azkenaldian Arbitraje Batzordeak gauzatutakoak».

- «Eratu zenetik, erakundeak aurkeztutako BEZaren, sozietateen gaineko zergaren eta lan-etekinen atxikipenen zerga-aitorpen guztiak Gipuzkoako Foru Ogasunaren aurrean egin direnaren ekintza ziurra eta ukaezina dugu»; idazkiari 2006ko, 2007ko, 2008ko eta 2009ko sozietateen gaineko zergaren aurkeztutako aitorpenen zein 2006 eta 2009 arteko lan-etekinen hiru hileko aitorpenen kopiak erantsita eta, espedientean, erakundeak Gipuzkoako Ogasunaren aurrean aurkeztutako BEZ aitorpenak jasota.

- 2007ko eta 2008ko ekitaldietan, sozietateak lanaldi osoko hiru eta lau langile mugagabe artean izan zituen kontratatuta; bere ustez, horrek «erakundeak helbidea Gipuzkoan zuela ere frogatzen du».

1. ERAKUNDEAK bere idazkia amaitzen du, honako hau esanez: «eskatutako 2007ko eta 2008ko BEZaren itzulera gauzatu beharko lukeen Administrazioa Gipuzkoako Foru Ogasuna da; nolana ere, ezerk ez luke aurka egingo, Arbitraje Batzordeak aipatutako eskumena Zerga Administrazioko Estatu Agentziari dagokiola erabakiko balu; izan ere, funtsean, merkataritza-sozietateak sustatutako eskumen-gatazkaren azken helburua bere aldeko BEZaren ZENBATEKOA 3 euroko kopurua berreskuratzea da, idazpen hori zein Administrazioek ordaintzen duen alde batera utzita». Era berean, azkenik, beharrezkoa iruditzen zaio honako gai hauek nabarmentzea «Administrazio eskuduna zein den kontuan izan gabe(...):

- «Eratu zenetik, 1. ERAKUNDEAREN helbidea Gipuzkoan dago. Lurralde horretan hartu izan dira beti erakundearen kudeaketari eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

administrazioari buruzko erabaki guztiak, han egon dira kontratatutako langile guztiak, eta bertan aurkeztu ditu bere zerga aitortpenak, bai eta zerga-betebeharrak bete ere (langileen atxikpenak, sozietateen gaineko zerga, BEZ).

- Merkataritza-erakundearen administratzaileen edo kide parte-hartzaileen herritartasunak ez du horren helbidea baldintzatzen. Eta hori horrela balitz ere, Kontseiluko kide edo administratzailearen bat Errusiakoa bada ere, badira Espainiakoa diren beste batzuk, hala nola Gipuzkoan helbidea duen 2. ADMINISTRATZAILE jauna. Gainera, Errusiakoa bada ere, 1. ADMINISTRATZAILE jaunak Gipuzkoako Berrobin du aitortutako eta egiaztatutako bizilekua.

- Erakundeak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean BEZ aitortpenak borondatezko epez kanpo aurkeztu izanak eta 2007ko eta 2008ko BEZaren itzulera horri eskatzeak Gipuzkoako Ogasunaren alde zuzeneko inibizioaren ondorioa dira soilik».

9.- Lehenik eta behin, gatazkaren konponbideak eskatzen du 1. ERAKUNDEA balio erantsiaren gaineko zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez dagoen erakunde den aztertzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi bezala. Aldiz, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak adierazten du «ez dela nahikoa frogatu (...)».

2008ko irailaren 18ko Erabakian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak 2007ko BEZaren itzulera ukatzen du; izan ere, bere ustez, «1. ERAKUNDEA sozietatea ez da subjektu pasiboa Gipuzkoako Lurralde Historikoa», [bere] Zeharkako Zergen Kudeaketa Zerbitzuak 2008ko abuztuaren 12an igorritako Txostenean islatutako gertaeren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko Tributuen 2/2005 Foru Arauaren 48.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

Artikuluari zein Sozietateen gaineko Zergari buruzko Gipuzkoako Lurralde Historikoko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 2.9 artikuluan (Aplikazio subjektiboaren, zergaren ordainarazpenaren eta helbide fiskalaren eremua) xedatutakoaren arabera.

Aldi berean, 2008ko abuztuaren 12ko aipaturako txostenak (hori erakundea helbide fiskala eta gauzatutako eragiketarako egiaztatze ikuskaritza-programan sartzearen ondorioz igorri zen) ondorioztatzen zuten, «enpresaren merkataritza-eta funtzionamendu-aspektuak ikusita (...), 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala (...) ez dago egoitza sozialean, kudeaketa administratiboa eta bere negozioen zuzendaritza ez dagoelako bertan modu eraginkorrean zentralizatuta».

Nolanahi ere, 2014ko abenduaren 4an, Arbitraje Batzordearen aurrean egindako alegazioetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ukatzen du 1. ERAKUNDEAK zergaren aplikazio-lurraldean ezarritako baldintza duenik; izan ere, adierazten du «zergaren aplikazio-lurraldean eta, horren barruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezarritako subjektu pasibotzat jota, erakundeak 102/1992 Foru Arauaren 115 artikuluan aurreikusitako itzulera-prozedura erabili zuela (...)», «itzulera-prozedura orokor hori Espainiako BEZaren aplikazio-lurraldearen barnean ezarritako enpresariak edo profesionalek soilik erabili dezaketenean». Eta Gipuzkoako Foru Aldundiak orain ohartarazten du lehen aldiz «[bere] Ogasun eta Finantza Sailak 1. ERAKUNDEAK helbide fiskala Gipuzkoan ez zuela pentsatzeak zergaren aplikazio-lurraldearen barnean ezarri gabetzat jotzea eragin zuela aldi berean, lurralde horretan bestelako egoitzarik edo establezimendurik ez izateagatik».

Ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak ukatu egiten du orain BEZaren ordainarazpenari buruzko Ekonomia Itunaren 27. Artikuluari ezarritako eskumen-banaketa arauen kasura aplikatzea; izan ere, bere ustez, «horiek zergaren aplikazio-lurraldean ezarritako subjektu pasiboei buruzkoak dira

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

soilik», eta adierazten du, «Ekonomia Itunak BEZaren hitzarmenari emandako gainontzeko manuetan (26-29 artikulua), ez dagoela inolako aurreikuspenik, zergaren aplikazio-lurraldean jasandako BEZ bertan ezarrita ez dauden enpresariei eta profesionalei itzultzeko Administrazio eskudunari dagokionez».

Azkenik, 2015eko apirilaren 10eko azken alegazioetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du, «[bere] Ogasun eta Finantza Sailak dituen datuen arabera (...), merkataritza-sozietatearen merkataritza- zein funtzionamendu-aspektuek» pentsarazten diote, ez «1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala (...) egoitza sozialean ez dagoela, kudeaketa administratiboa eta negozioen kudeaketa bertan modu eraginkorrean zentralizatuta ez egoteagatik» (2008ko abuztuaren 12ko txostenean ondorioztatu bezala), baizik eta 1. ERAKUNDEA «zergaren aplikazio-lurraldean erakunde ez-egoiliarra dela» (4. orr.). Amaitzeko, adierazten du, «nolanahi ere, Administrazio honek ez duela gatatzaren xedea diren BEZ itzulerak gauzatzeko bere eskumen eza merkataritza-sozietateak eragiketarako gauzatzeko kokagunean oinarritzen, baizik eta zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez izatearen kontsiderazioan. Estatuko Administrazioak ez du aspektu hori inoiz ukatu» (5. orr.).

10.- Nolanahi ere, abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 84.Bi artikulua eta BEZari buruzko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren arabera, eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari (EEEZ) buruzko Ekonomia Itunaren 21.Bi artikuluan xedatutakoa ere kontuan izanda, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak adierazten du «subjektu pasiboa lurralde jakin batean kokatuta dagoen zehazteko, kontuan izan behar dugula jardura ekonomikoaren egoitza, helbide fiskala edo zergari lotutako ondasun-emateen eta zerbitzu-prestazioen gauzapenean esku hartzen duen behin betiko establezimendurik dagoen leku berean». Jarraian, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak erantsen du «Gipuzkoako Foru Aldundiak ez duela nahikoa frogatu baldintza horiek ez direla ematen aipaturako Aldundiaren Lurraldean». Adierazpen hori zehazki

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

azaldutako gertaeretan eta Arbitraje Batzordeak partekatu beharreko arrazoibideetan oinarritzen da.

Izan ere, espedientean agertzen den dokumentaziotik eta aurrez aurre daude Administrazioek zein gatazka sustatu duen erakundeak gauzatutako alegazioetatik ezin dira atera 2005ean Espainiako legeriaren arabera Gipuzkoan eratutako erakundea Gipuzkoan edo Espainiako BEZaren aplikazio-lurralde osoan ezarrita ez dagoela defendatzea ahalbidetzen duten datu edo argudio faktikorik edo juridikorik. Gainera, erakunde horrek ordudunik ditu aitortuta lurralde horretan bere egoitza soziala eta fiskala; eratu eta bi hilabete beranduago alta-aitorpena aurkeztu zuen ekonomia-jardueren zergaren bi epigrafetan bere jarduera gauzatzeko (txatarraren eta burdina-hondakineko metalen handizkako salmenta, eta hondakinen berreskurapena eta merkataritza establezimenduz kanpo, hurrenez hurren); 2006ko, 2007ko eta 2008ko sozietateen gaineko zergari dagozkion zerga-aitorpenak Gipuzkoan aurkeztu ditu, bai eta BEZ autolikidazioak ere (...), 2005eko laugarren hiruhilekotik 2008ko abuztura arte (horiek hiru hilez behingoak dira 2005ean eta 2006an, eta hilean behingoak 2007an eta 2008an)», Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortu bezala; Gipuzkoan ere kontratatutako langileak ditu, eta Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztutako 2006 eta 2009 arteko langileen PFEZ Atxikipenei dagozkien hiru hilez behingo aitorpenak espedientean jasota daude; kontratatutako boterea duen pertsona du ere Euskadin, bai eta mota orotako eta Gipuzkoan kokatutako inbertsio-ondasunak eta, azkenik, erakundeak gauzatutako eragiketen kobrantzak eta ordainketak kudeatzeko banku-kontuak ere, Gipuzkoako bankuetako sukurtsaletan.

Espedientean egiaztatutako baldintza-multzo horren aurrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazten du, «[bere] Ogasun eta Finantza Sailak 1. ERAKUNDEAK helbide fiskala Gipuzkoan ez zuela pentsatzeak zergaren aplikazio-lurraldearen barnean ez ezarritzat jotzea eragin zuela aldi berean, ez zuelako bestelako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

egoitzarik edo establezimendurik lurralde horretan»; eta hori ondorio apodiktiko zein frogagabe hori justifikatzeko inolako iritzizko daturik zein elementurik eman gabe eta, noski, kontuan izan gabe, kasuari aplikagarria zaion idazketan, 37/1992 Legaren eta abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 84.Bi artikulua «zergaren aplikazio-lurraldean ezarritakoen» baldintza ez zaiela soilik helbide fiskala lurralde horretan duten subjektu pasiboari aplikatzen; aldiz, «bertan, jarduera ekonomikoaren egoitza edo establezimendu egonkorra dutenei ere aplikatzen zaie (...), zergari lotutako eragiketak bertatik gauzatzen ez badituzte ere».

Azkenik, kontuan izan behar da 1. ERAKUNDEAK «zorrotz egiten diola uko Gipuzkoako Administrazioak defendatutako tesiari, erakundea Gipuzkoako egoiliarra denaren hainbat froga ukaezin eta eztabaidaekin daudela esanez. Gipuzkoako Ogasunak baldintza hori ukatu zuen, doan eta bere interesei jarraiki, BEZ itzultzeko eskaera aurkeztu ziotenean (...)».

11.- 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskalari dagokionez (aipatu berri diren manuen arabera, ez da nahastu behar «bere jarduera ekonomikoaren egoitzarekin» edo «establezimendu iraunkorraren» existentziarekin), aipatzekoa da, 2005ean eratu zenetik, erakundeak Gipuzkoan zuela aitortuta bere egoitza soziala, eta kontuan izan behar da -2013ko urriaren 17ko 538/2012 errekurtsio-zenbakia duen Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren Epaiak adierazi bezala-, «hasiera batean, legegileak berak egoitza soziala eta helbide fiskala identifikatzen dituela, baina (...) baldintzen [Ekonomia Itunaren 43.Lau artikuluan ezarritakoak: egoitza sozialean «bere kudeaketa administratiboa eta bere negozioen zuzendaritza zentralizatuta egotea, modu eraginkorrean] aldiberekotasunaren menpe. Horiei jaramonik egin ezean, aipatutako egoitza soziala hartuko da kontuan, zerga-harremanaren osaketarako» (Bosgarren Oinarria).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

1. ERAKUNDEAK bere egoitza soziala eta helbide fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan aitortuta, aitorten horri lotutako ziurtasunaren presuntzio legala indargabetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiari egokituko zitzaion frogatzea kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza Lurralde Erkidean zegoela, karga frogagarri hori aurkako beste Administrazioari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, egotzi ordez. Agentziarentzat, «deigarria da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sozietatearen helbide fiskala bere lurraldean ez zegoela ziur bazekien ere, Foru Ogasun horrek ez duela inoiz aurkeztu aipaturako helbide fiskala Lurralde Erkidean dagoenaren frogarik, ezta dagokion helbidea-aldaketa Zerga Administrazioko Estatu Agentziari proposatu ere».

Egia da, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere azken alegazioetan gogoratu bezala, «Aldundiak merkataritza-sozietateak helbide fiskala Gipuzkoako lurraldean kokatuta dagoela adieraztea eta kontsideratzea jarri du zalantzan, gatazka honetan». Era berean, 2014ko abenduaren 4ko bere alegazioetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008ko abuztuaren 12ko Txostenean jasotako datuak eta ondorioak errepikatzen ditu puntu horretan, ondoko aldietako beste batzuk erantsita (2010 eta 2011) eta, ondorioz, eztabaida honekin zerikusirik ez dutenak (2007 eta 2008), kontuan izan gabe datu horiek objektatu egin zirela eta ondorio horiek ezeztatu egin zirela, erakundeak zein Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandakoekin. Bere azken alegazioetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak bestelako datu zirkunstantzialen bat ematera mugatu zen eta, ondorioz, ez zuen aitortutako helbidea erakundearen helbide fiskal eraginkorra zela ukatzeko balio izan. Amaitzeko, adierazi zuen, «[bere] Ogasun eta Finantza Sailean zeuden datuen arabera (...), merkataritza-sozietatearen merkataritza- eta funtzionamendu-aspektuek pentsarazten dutela erakundeak ez dagoela zergaren aplikazio-lurraldean kokatuta».

Auzitegi Gorenak berretsita, Arbitraje Batzordearen errepikatutako doktrina da, erabakigarria pertsona juridikoen helbide fiskalari dagokionez, egoitza soziala

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

baino, «kudeaketa administratiboaren eta negozioen zuzendaritzaren» kokapena direla erabakigarriak. Azken hori kontzeptu juridiko zehaztugabea da, eta horren zehaztapenak kasuaren baldintza guztiak kontuan hartzea behar du. Beraz, helbide fiskalaren kokapena baldintza horiek (kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza) toki jakin batean eta aldi berean gertatzen direla frogatuz egiaztatu beharreko ekintza da. Azkenik, Auzitegi Gorenak zehazten du «bere kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza adierazpen zentralizatua adierazpen konplexua dela (...) eta kasuz kasu adostu behar dela, kasu bakoitzean izandako baldintza zehatz objektiboen arabera baino, landutako sozietate zehatzaren eta, zehazki, gauzatzen duen jardueraren arabera integratuta» (2013ko urriaren 17ko Epaia, 538/2012 errekurtsorenbakia, Laugarren Oinarria; 2014ko otsailaren 21eko Epaia, 505/2012 errekurtsorenbakia, Laugarren Oinarria; eta 2015eko ekainaren 18ko Epaia, 417/2013 eta 471/2013 errekurtsorenbakiak, Laugarren Oinarria). «Horretarako, -Auzitegi Gorenak ere zehaztu bezala- ez dira gaitzetsi behar enpresa-askatasuna edo establezimendu-askatasuna bezalako printzipioak; izan ere, hitz batez, pertsona juridikoak garatu nahi duen kudeaketari eta zuzendaritzari dagokionez, aukera legitimoaren jarduera ematen du, zergapekoak zerga-eremuan ezarritako baldintza legalen menpean egotea kaltetu gabe (...)» (2013ko urriaren 17ko Epaia, 538/2012 errekurtsorenbakia, Bosgarren Oinarria).

Aurreko orientazioak ikusita, espedientearen datuak eta dokumentazioa batera baloratuta jadanik islatutako terminoetan, eta kontuan hartuta erakundeak garatutako enpresa-jarduera, ondorioztatu behar da, 1. ERAKUNDEAK aitortutako helbidea hartzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiak ez dituela aitorten horren ziurtasun-presuntzioa indargabetzea ahalbidetuko duten datu, froga edo iritzizko elementu sinesgarririk ekarri espedientera, 2007an eta 2008an, horren helbide fiskal eraginkorra Gipuzkoako Lurralde Historikoa ez zen beste batean zegoela egiaztatuta. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

bertan kokatzen du sozietatearen helbide fiskala, Ikuskaritzako Zuzendariordetza Orokorren 2008ko abuztuaren 12ko Txosteneko datuak eta kontsiderazioak ezeztatu ondoren; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak horretan oinarritzen du gatazka honetan duen uzia.

12.- 1. ERAKUNDEA BEZaren aplikazio-lurraldean eta, zehazki, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezarritako subjektu pasibotzat jotzen dela ezarrita, Ekonomia Itunaren transkribatutako 27-29 artikuluetara jo behar da, aurkeztutako gai nagusia argitzeko, BEZaren ordainarazpen-eskumenak banatzeko 27.Bat artikulua ezartzen dituen arauen analisiarekin hasita.

2/2011 espedientea duen urriaren 13ko R 4/2014 ebazpenean esan bezala, Ekonomia Itunaren 27.Bat artikulua egiturak «arau orokorra eta salbuespena ditu. Lehen eta Bigarren arauetan jasotako arau orokorra eragiketen gauzapen-tokiaren irizpideari buruzkoa da, horien bolumena eta subjektu pasiboaren helbide fiskala alde batera utzita. Hirugarren arauan jasotako salbuespenak eragiketen gauzapen-tokiaren irizpidea aurreko urtean 6 milioi eurotik beherako eragiketa-bolumena duten subjektuen helbide fiskalaren egoeraren irizpidearengatik ordezkutzen du. Ondorioz, argi dago, aurrekontuak elkartzen direnean, lex specialis bezala, ohiz kanpoko araua arau orokorraren gainetik aplikatu behar dela» (3. Zuzenbideko Oinarria).

Kasu honetan, arau bereziaren aurrekontuak ez dira elkartzen (hau da, Ekonomia Itunaren 27.Bat artikulua Hirugarren arauarena); ondorioz, ez da beharrezkoa helbide fiskalaren irizpidera jotzea, baizik eta aipatutako 27.Bat artikulua Lehen arauan jasotako arau orokorrean aurreikusitako eragiketen gauzapenaren tokiaren irizpidera. Izan ere, 2007ko eta 2008ko ekitaldietan, erakundeak adierazitakoaren arabera, 1. ERAKUNDEAK ez zuen eragiketarik gauzatu Lurralde Erkidean. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak baldintza hori berretsi zuen bere datu-basetik lortutako informazioarekin, erakundeak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

aurkeztutako BEZaren itzulera-eskaerak gaitzesteko 2010eko martxoaren 30ean hartutako ebazpen ezberdinetan adierazita, «Administrazio honek dituen datuetatik eta aurrekarietatik, eta zergapekoak emandako aldarrikapenetatik eta informazioetatik (...) jakinarazi dela zergapekoak ez zuela ondasunak entregatzerik gauzatu Lurralde Erkidean 2007an [eta 2008an]; ondorioz, ulertzen da horrek aipatutako ekitaldian [2007 eta 2008] lortutako eragiketabolumen osoaren zatirik ez dela gauzatu aipatutako lurraldean. Beraz, Ekonomia Itunaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera (...), 1. ERAKUNDEAK ez du Estatuko Administrazioan tributatu beharrik, aipatutako kontzeptuarengatik [BEZ] eta aldian [2007 eta 2008] (...)».

Bere aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak ez du ukatzen erakundeak eragiketak Gipuzkoan soilik gauzatzen dituenaren Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren alegazioa, eta adierazten du «Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zergapekoak gauzatutako aldarrikapen sinpleetan oinarritzen dituela berriro bere alegazioak, horretarako egiaztapen-jarduerarik zabaldu gabe»; eta «edozer kasutan (...), Administrazio honek ez duela gatazka honen xedea diren BEZ itzulerak gauzatzeko eskumen eza merkataritza-sozietatearen eragiketen gauzapan-tokian oinarritzen, baizik eta zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita ez izatearen kontsiderazioan (...)».

Nolanahi ere, ez dago zergapekoak arbitraje-prozeduran gauzatutako aldarrikapenak ez sinestea ahalbidetuko duen arrazoi faktikorik, ez juridikorik, sinesgarritasuna ukatuta edo, hasieratik, gatazkan dauden Administrazioek gauzatutakoek merezi duten sinesgarritasun ezberdina edo txikiagoa emanda. Are gehiago, kasu honetan; izan ere, zergapekoaren aldarrikapenak ez dira doakoak (horiek oinarritzeko datuak eta dokumentu egokiak ekartzen dituzte), ezta interesdunak ere (kontuan izan behar da, proposatu zuen erakundeak gatazka honetan duen interes bakarra dela «ZENBATEKOA 3 euroko kopurua berreskuratzea, idazpen hori zein Administraziok ordaintzen duen kontuan izan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

gabe». Nolanahi ere, bere alegazioak emaitzen ditu esanez, «Administrazio eskuduna zein den kontuan izan gabe (...), bere ustez, eskatutako 2007ko eta 2008ko BEZ itzulera gauzatu beharko lukeen Administrazioa Gipuzkoako Foru Ogasuna da. Hala ere, ezerk ez luke aurka egingo, Arbitraje Batzordeak eskumen hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziari dagokiola erabakiko balu (...))».

Beraz, 2007an eta 2008an, 1. ERAKUNDEAK Gipuzkoan soilik jarduten zuela zalantzan jartzeko daturik ez dagoenez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak aitortuta erakundeak aurreko ekitaldietan (2006 eta 2007, hurrenez hurren) aitortutako negozio-kopuruaren zenbateko garbia 6 eta 7 milioitik gorakoa izan zela, Gipuzkoako Foru Aldundia izango da 2007ko eta 2008ko BEZ ordainarazteko Administrazio eskuduna, 1. ERAKUNDEAK lurralde horretan soilik jarduten duelako (27.Bat artikulua arau orokorra, Lehen araua) eta aurreko urteetako eragiketa-bolumen osoak 6 eta 7 milioi eurotik gorakoak izateagatik, hurrenez hurren. Baldintza horrek 27.Bat artikulua, Hirugarren arauaren ohiz kanpoko arauaren aplikazioa baztertzen du; izan ere, lex specialis bezala, beste kasu batean aplikatu beharko litzateke, arau orokorraren gainetik.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

1.- Aitortzea Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola 1. ERAKUNDEAREN (IFZ -- --) 2007ko eta 2008ko BEZ ordainarazteko eta, ondorioz, itzultzeko eskumena.

2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
16/2010	R22/2015	2015-12-28	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Zergaren ordainarazpenerako administrazio eskuduna. 2007 eta 2008 ekitaldiak.

3.- Hitzarmen hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta 1. ERAKUNDEARI jakinaraztea.